

Uztailaren 5eko Hirilurren Balioaren Gehikuntzen gaineko Zergari buruzko 16/1989 FORU ARAUA.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik.
Eguneratutako foru arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten
xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA: IZAERA ETA EGITATE EZARGARRIA	2
1. artikulua	2
2. artikulua	4
III. KAPITULUA: SUBJEKTU PASIBOA	5
3. artikulua	5
IV. KAPITULUA: OINARRI EZARGARRIA ETA KUOTA	6
4. artikulua	6
5. artikulua	8
6. artikulua	9
VI. KAPITULUA : KUDEAKETA	11
7. artikulua	11
XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. IZAtezko bikoteak	12
XEDAPEN IRAGANKORRAK	13
Lehena	13
Bigarrena	13
INDARGABETZE XEDAPENA	13
AZKEN XEDAPENA	14

ATARIKOA

Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau erregulatzailerak, horien tributu baliabideen artean Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ikusten du, Kontzertu Ekonomikoan aurrikusitakoaren arabera.

Hori dela eta, Foru Arau honek borondatezko Udal Zerga horren erregulazio zehatza barnebiltzen du, izendapen berbera zuen lehenagoko Zergaren ordezkia izango delarik.

Zerga berriak dituen berrikuntzen artean, zergaren beraren errazketaz gain, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eraginetarako ezarri lurren balioaren onespina dago, horren ondorioz balio alorreko elementu bateratzailea sartzen delarik.¹

Azpimarkatzekoa da, era berean, Zerga honen zioz ordaindutako kuotaren 100eko 75a Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik kendu ahal izatea nahiz eta kenkari hori azken zerga honetako berezko arautegian biltzen den.

I. kapitulua: Izaera eta egitate ezargarria

1. artikulua.

1. Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko zerga zuzeneko tributu lokala da, lur horiek jasan dezaten eta, edozein titulu bidezko lur horien jabetza eskualdaketaen ondorioz edo aipatu lurren gaineko edozein gozameneko ondasun-eskubideren, jabaria mugatuz, osaketa edo eskualdaketaen ondorioz agerian jarri dadin balio gehikuntza kargatzen duena.

2.² Ondoko hauek ez dira Zergari lotuta egongo:

a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako landalurtzat hartzen diren lurren balio gehikuntza. Beraz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako hirilurtzat hartzen diren lurren balio gehikuntza zergari lotuta egongo da, Katastroan edo Zergaren Erroldan halakotzat ageri edo ez.

b)³ Hiri lurren balio gehikuntza, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak VI. tituluaren VII. kapituluan jasotako araubide berezia aplikagarria zaien eragiketetatik eratorritako eskualdaketen ondorioz gertatu bada, salbu foru arau horrek 111. artikuluan jasotakoaren

¹ Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 16/1989 Foru Araua zati batean aldatzen duen abenduaren 29 ko 20/1989 Foru Arauak ezarritakoaren ondorioz, Atariko "in fine" hirugarren parrafoa ezabatu da.

² 2. apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 6. artikuluan bat zerbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

³ Letra hau 2023ko urtarilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 11. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO).

arabera ematen diren lurren gaineko eragiketak, lurrak jarduera adar batean sartuta ez daudenean.

Aipatutako lurrak geroago eskualdatzen badira, ulertuko da aipatutako VI. tituluaren VII. kapituluaren jasotako eragiketetatik eratorritako eskualdaketa ez duela etengo balio gehikuntza agerian jarri den urte kopurua.

c)⁴ Ezkontideek ezkontza sozietateari egindako ondasun eta eskubideen ekarpenen kasuan, ekarpen horien ordainetan haien alde egiten diren adjudikazio egiaztatuak eta ezkontideei beren hartzeko erkideen ordainetan egiten diren eskualdaketa.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko paragrafoan aipatutako kasu berberetan, izatezko bikotekideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei dagokienez.

Zergari lotu gabe egongo da, orobat, ezkontideen artean, izatezko bikotekideen artean edo seme-alaben alde ondasun higiezinak eskualdatzea, baldin eta eskualdaketa hori gertatzen bada ezkontza baliogabetu edo senar-emazteak banandu edo dibortziaztean edo izatezko bikotea deuseztatzean emandako sententziak betetzeagatik, ezkontzako erregimen ekonomikoa edo izatezko bikotearen ondarezko erregimen ekonomikoa zeinahi dela ere..

3.⁵ Lurren eskualdaketa ez dira egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzeko balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean.

Horretarako, balio gehikuntzarik ez dela izan frogatu nahi duen pertsona edo entitate interesdunak eskualdaketa aitortu beharko du, eta eskualdaketa eta eskurapena dokumentatzen dituzten tituluak aurkeztu ere bai; ondorio horietarako, 3. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo entitateak izango dira interesdun.

Eskualdaketa balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzeko, honako hau hartuko da lurraren eskualdaketa edo eskurapen baliozat kasu bakoitzean: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, kasua bada, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Ondorio horietarako, eragiketa horietan izandako gastuak edo aplikatutako tributuak ezingo dira konputatu, eta ez da inolako eguneratzerik izango denbora igarotzeagatik.

Higiezinaren eskualdaketa lurzorua eta eraikuntza sartzen direnean, lurzoruen baliozat hartuko da zergaren sortzapen egunean lurraren katastro balioak katastro balio osoarekiko duen proportzioa aplikatuta ateratzen dena, eta proportzio hori aplikatuko zaie bai eskualdaketa balioari eta, hala badagokio, baita eskurapen balioari ere.

⁴ Letra hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUAREN 11. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO).

⁵ Apartatu hau azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Arauen artikuluko bakarreko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretu-arauek Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzen du. Foru dekretu-araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2021/11/17ko GAO).

Eskurapena edo eskualdaketa kostu gabekoa izan bada, aurreko paragrafoetako erregelak izango dira aplikagarriak, eta, hala dagokionean, gorago aipatutako bi balio konparagarrietatik lehenengotzat oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa hartuko da.

Apartatu honetan aipatutako higiezinaren ondorengo eskualdaketa, lurren balio gehikuntza zenbat urtetan sortu den konputatzeko, higiezina eskuratu aurreko denbora ez da kontuan hartuko. Ondasun higiezinaren ekarpen edo eskualdaketei ez zaie aplikatuko paragrafo honetan xedatutakoa, artikuluko honen 2. apartatuko b) eta c) letren arabera zergari lotuta ez daudenean.

II. kapitulua: Salbuespenak

2. artikulua.⁶

1. Balio gehikuntzak zerga honetatik salbuetsiko dira egintza hauen ondorio direnean:

a) Zortasun eskubideak eratu eta eskualdatzea.

b) Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarenak, 4.2.e) artikuluan aurreikusten duen salbuespena aplikagarri duten ondasunak eskualdatzea, baldin eta haien jabeek edo eskubide errealeko titularrek frogaturik uzten badute ondasun higiezin horiek artatu, hobetu edo birgaitzeko obrak euren kontura egin dituztela. Ondorio horietarako, ordenantza fiskalak salbuespenaren alderdi substantibo eta formalak ezarriko ditu.

2. Era berean, balio gehikuntzak salbuetsita egongo dira zerga ordaintzera behartuta dauden pertsona edo entitateak ondoko hauek direnean:

a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta, orobat, lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

b) Zerga ezartzen duen udalerria, udalerri horren parte diren edo izan daitezkeen gainerako udal entitateak, eta lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako kalifikazioa duten erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.

e) Emakida administratibo itzulgarrien titularrak, emakidei atxikitako lurrei dagokienez.

f) Gurutze Gorria eta beronekin pareka daitezkeen beste entitateak, erregelamenduz zehaztuko direnak.

⁶ 2.artikulu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAREN 6.artikuluaren bi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

g) Salbuespena nazioarteko itun edo hitzarmenetan aitortua duten pertsona edo entitateak.

III. kapitulua: Subjektu pasiboa

3. artikulua.⁷

1. Honako hauek dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun gisa:

a) Lurren kostu gabeko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealen kostu gabeko eraketan edo eskualdaketan, lurra eskuratzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatua aipatzen duen entitatea, edo, bestela, dena delako eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaion pertsona.

b) Lurren kostu bidezko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealen kostu bidezko eraketan edo eskualdaketan, lurra eskualdatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatua aipatzen duen entitatea, edo dena delako eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duena.

2. Aurreko apartatuko b) letran aipatutako kasuetan, lurra eskuratzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatua aipatutako entitatea, nahiz eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaiona, zergadunaren ordezkotako subjektu pasibo izango da baldin eta zergaduna Espainian egoitzarik ez duen pertsona fisiko bat edo entitate bat bada, ordezkaria izendatzeko obligaziorik ez badu, edo obligazio hori edukita, ordezkariak solidarioki erantzuten ez badu ordezkatuaren zerga zorra ordaintzeko obligazioari dagokionez.

3. Lurra ohiko etxebizitzaren hipoteka betearazteagatik eskualdatzen direnean, haiek eskuratzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3 artikulua aipatzen den entitatea hartuko da zergadunaren ordezkotako subjektu pasibotzat.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ordezkotako ezingo dio zergadunari exijitu ordaindutako obligazio tributarioaren zenbatekoa.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 90.8 artikulua halakotzat definitutakoa.

4. martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuak, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzkoak, 2. artikulua ezarritakoan sartzen diren zordunek euren etxebizitza zorren ordainez emateagatik egindako eskualdaketetan, ondasun higiezinak eskuratzen duen entitatea izango da zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboa, eta ordezkotako ezin izango dio zergadunari exijitu ordaindutako zerga obligazioen zenbatekoa.

⁷ Artikulu hau maiatzaren 14ko 2/2012 FORU ARAUaren artikulua bakarrak aldatu du. Aipatutako foru arauak Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zergari buruzko 16/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako hurrengo egunean sartzen da indarrean aldaketa (2012/05/21eko GAO).

IV. kapitulua: Oinarri ezargarria eta kuota

4. artikulua.⁸

1. Zerga honen zerga oinarria lurren balio gehikuntza da, hain zuzen ere, sortzapenaren unean agerian jarri eta gehienez ere hogeituroko epean izandakoa. Haren zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da, artikulua honen 4. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe: artikulua horren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera sortzapenaren unean lurrari kalkulatu zaion balioa bider 3. apartatuaren arabera sorreraldiari dagokion koefizientea.

2. Sortzapenaren unean lurra zer balio duen zehazteko, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Lurren eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako une horretantxe dutena izango da.

Hala ere, balio hori balio ponentzia baten ondorio bada, eta ponentzia horretan ez badira islatzen hura onartu ondoren onartu diren planeamendu aldaketak, zilegi izango da zerga honen behin-behineko likidazio bat egitea balio ponentzia horretatik abiatuta. Horrelako kasuetan, behin betiko likidazioan aplikatuko den balioa kasuan kasuko balio ponentziaren aldaketan edo balioen berrikuspenean xedatutakoaren arabera ateratzen dena izango da, betiere sortzapen data erreferentzia hartuta. Data hori ez badator bat katastro balio berrien eragin datarekin, balio horiek zuzenduko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuen foru arauetan ezartzen diren eguneratze koefizienteak aplikatuta.

Gertatzen bada kasuan kasuko lurra, hiri izaerakoa izanik ere, zergaren sortzapenaren unean oraindik ez daukala zehaztuta inolako katastro baliorik, udalak katastro balio hori finkatzen denean egin ahal izango du likidazioa, sortzapenaren unean dagoen balioa aintzat hartuta.

Udalek gehienez ere 100eko 15eko koefiziente murriztaile bat ezarri ahal izango dute ordenantza fiskalean, aurreko paragrafoetan adierazitako balioaren gainean, balioaren eguneratze maila haztatzeko.

b) Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealeen eraketan eta eskualdaketan, artikulua honen 3. apartatuan ezarri diren urteko portzentajeak aplikatuko dira kontuan izanik aurreko a) paragrafoan definitutako baliotik zer zati dagokien aipatu diren eskubideei. Eskubide horien balioa ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako ezarritako arauak aplikatuz kalkulatu da.

c) Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago jasotzeko edo lur azpian eraikitzeko eskubidearen eraketan edo eskualdaketan —lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere—, artikulua honen 3. apartatuan ezarri diren urteko portzentajeak aurreko a) paragrafoan definitutako balioaren gainean aplikatuko dira, baina, kasu honetan, kontuan izanik balio horretatik zer zati dagokion eskualdaketa eskrituran finkatutako proportzionaltasun moduluari edo,

⁸ Artikulu hau azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Arauaren artikulua bakarreko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzen du. Foru dekretu-araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2021/11/17ko GAO).

halakorik ezean, lur gainean edo lur azpian eraikiko diren solairuen azalera edo bolumenaren eta eraikitako azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioari horiek behin eraiki ondoren.

d) Nahitaezko desjabetzeen kasuan, artikuluko honen 3. apartatuan ezarri diren urteko portzentajeak lurraren balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, salbu eta aurreko 2. apartatuko a) paragrafoan definitutako balioa txikiagoa bada, kasu horretan, azken hori hartuko baita, ez balio justua.

3. Balio gehikuntzaren sorreraldia gehikuntza hori agerian jartzeko igarotako urte kopurua izango da.

Eragiketak zergari lotuta ez dauden kasuetan, eta, betiere, foru arau bidez besterik esaten ez bada, lurraren geroko eskualdaketa batean balio gehikuntzaren sorreraldia zenbatekoa izan den kalkulatzeko, eskurapen datatzat zergaren azken sortzapena gertatu zen data hartuko da aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

Igarotako urte kopuruaren konputuan urte osoak hartuko dira, hau da, urte zatikiak aintzat hartu gabe. Sorreraldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hainbanatuko da hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, hau da, hilabete zatikiak aintzat hartu gabe.

Sortzapenaren unean lurrak duen balioari (aurreko apartatueta xedatu da nola kalkulatu balio hori) udalak onartzen duen koefizientea aplikatuko zaio balio gehikuntzaren sorreraldia kontuan hartuta, eta koefiziente horrek ezingo ditu inoiz muga hauek gainditu:⁹

Sorreraldia	Koefizientea
Urtebetetik behera.	0,16
Urte bat.	0,15
2 urte.	0,15
3 urte.	0,15
4 urte.	0,16
5 urte.	0,18
6 urte.	0,20
7 urte.	0,22

⁹ Koefizienteak maiatzaren 9ko 1/2025 FORU ARAUaren laugarren xedapen gehigarriak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2025/05/15eko GAO).

8 urte.	0,23
9 urte.	0,21
10 urte.	0,16
11 urte.	0,13
12 urte.	0,11
13 urte.	0,10
14 urte.	0,10
15 urte.	0,10
16 urte.	0,10
17 urte.	0,12
18 urte.	0,16
19 urte.	0,22
20 urte edo gehiago.	0,35»

Gehieneko koefiziente horiek urtero eguneratuko dira foru arau bidez, eta eguneratze hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren foru arauetan ere egin ahal izango da.

Aurreko paragrafoan aipatutako eguneratzeak berekin badakar ordenantza fiskalean onartutako koefizienteetako bat lege ezarritako gehieneko berria baino handia izatea, azken hori zuzenean aplikatuko da, soberakina zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.

4. Subjektu pasiboak 1. artikuluko 3. apartatuan ezarritako prozedurari jarraituz eskaturik, egiaztatzen bada balio gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikuluko honetako aurreko apartatueta xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zenbatekoa baino, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

5. artikulua.¹⁰

1.¹¹ Zergaren karga tasa udal bakoitzak finkatuko du, eta tasa hori ezingo da inoiz izan 100eko 30etik gorakoa.

¹⁰ 5.artikulu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAren 6.artikuluaren lau zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

¹¹ Apartatu hau martxoaren 10eko 1/2022 Foru Arauaren 10. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2022-03-14ko GAO).

Aurreko paragrafoan adierazitako mugaren barruan beti, udalek zilegi izango dute karga tasa bakarria finkatzea edo tasa bana ezartzea aurreko artikuluko 3. apartatuan adierazitako balio gehikuntzaren sorreraldi bakoitzerako.

2. Zergaren kuota osoa oinarri ezargarriari karga tasa aplikatuz ateratzen den emaitza izango da.

3. Zergaren kuota likidua kuota osoari hurrengo apartatuko hobaria bere kasuan aplikatuz ateratzen den emaitza izango da.

4.¹² Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek zergaren kuota osoaren ehuneko 95era arteko hobaria arautu ahal izango dute lurren eskualdaketan eta jabaria mugatzen duten gozameneko ondasun eskubideen eskualdaketan edo eraketan, betiere kostu gabeko eskualdaketak edo eraketak badira eta ondorengo ahaideen, adoptatuen, ezkontideen eta izatezko bikotekideen edo aurreko ahaideen edo adoptatzaileen alde egiten badira, heriotza dela-eta.

Aurreko paragrafoan aipatutako hobariaren gainerako alderdi substantibo eta formalak ordenantza fiskalean arautuko dira.

V.kapitulua: Sortzapena

6. artikulua.

1. Data hauetan sorteraiziko da Zerga:

a) Lurraren jabetza bizien artean edo heriotzaren zioz eskualdatzen denean, kostubidez edo dohain izanik ere, eskualdaketa datan.

b) Jabaria mugatzen duen edozein ondasun-eskubide eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa gertatzen den datan.

2.¹³ Epaileek edo Administrazioak ebazpen irmoaz deklaratu edo aitortzen badute lurraren eskualdaketa edo beronen gaineko gozameneko eskubide errealaren eraketa edo eskualdaketa sortarazi zuen egintza edo kontratua deuseztatu, desegin edo amaitu dela, subjektu pasiboak eskubidea izango du berak ordaindutako zergaren itzulketa jasotzeko, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazirik sortu ez badio eta itzulketa lau urteko epean erreklamatzeko badu ebazpena irmo bihurtu zenetik aurrera; irabazia egon dela ulertuko da justifikatzen ez denean interesatuek Kode Zibilak 1295. artikuluan jasotakoaren arabera elkarri egin beharreko itzulketak gauzatu behar dituztela. Egintzak edo kontratuak irabazirik sortarazi ez baina, desegitea edo amaiera zergaren subjektu pasiboak obligazioak ez betetzeagatik deklaratzeko bada, ez da itzulketa eskubiderik egongo.

¹² 4.apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUAREN 11. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO)..

¹³ 2. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 13. artikuluko Zazpi apartatuak aldatu du, 2000ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

3. Kontratua, alde kontratatzaileen elkarren arteko adostasunez ondoriorik gabe geratzen bada, ez da ordaindutako Zerga itzuliko eta tributua ordaindu beharreko egintza berriztat hartuko da Elkarren arteko adostasuntzat adiskidetze-egintzako adostasuna eta demandarekiko amoregite hutsa joko dira.

4.¹⁴ Egintza edo kontratuek baldintzaren bat ezarrita dutenean, Kode Zibilean jasotakoaren arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, beti exijituko da zerga, nahiz eta horrek ez duen eragotziko, baldintza betetzen denean, bidezko itzulketa egitea aurreko apartatuko erregelaren arabera.

Testamentu-ahalardearen bidez gauza-tzen diren heren-tzietan, zerga sortuko da ahalordea modu ezeztazenez erabil-tzen denean edo hura azken-tzeko arrazoietakoa bat gerta-tzen denean.

5.¹⁵¹⁶ Testamentu-ahalardean pertsona jakin bati eman bazaio herentziako ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horrengatik likidazio bakarra egingo da, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera eta biziarteko gozamenen arauak aplikatuta.

Gozamena azkentzen denean testamentu-ahalardea erabiltzean, bi likidazio egingo dira gozamen horrengatik, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehen likidazio bat, kausatzailea hiltzen denean, biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

Alabaina, testamentu-ahalardea erabiltzeko epea zehaztuta badago, lehen likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauak aplikatuta egingo da, ahalordea erabiltzeko ezarrita dagoen gehieneko epeagatik.

b) Beste likidazio berri bat, testamentu-ahalardea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauarekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboragatik. Aurreko likidazioagatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

b) letra honetan aipatzen den likidazioa aurkeztuko da testamentu-ahalardea baliatzeagatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik oinordeko gertatzen diren likidazioa aurkeztearekin batera.

¹⁴Apartatu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 6. artikulua berridatzi du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitu du. Foru araua GAO n argitaratu den egunean jarri da indarrean (GAO 2016-11-18) eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

¹⁵Apartatu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 6. artikulua bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitu du. Foru araua GAO n argitaratu den egunean jarri da indarrean (GAO 2016-11-18) eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

¹⁶ Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 10. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO), eta xedapen honek 2018-01-01etik aurrerako ondorioak ditu.

6.¹⁷ Lurren eskualdaketak testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziek egiten dituztenean Euskal Zuzenbide Zibilaria buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluko xedapen egintzen ondorioz, eskualdaketa horiek oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena ez badakarte, aplikagarria izango da azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaria buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzen duenak, II. tituluko II. kapituluan, eta badagokio, III. kapituluan, xedatutakoa.

VI. kapitulua : Kudeaketa

7. artikulua.

1. Subjektu pasiboek bakoitzak bere Udalean, dagokion Ordenantzak zehaztuko duen aitorpena aurkeztu behar izango dute, hark bidezko likidazioa egiteko tributu zerrendaren barruko behar-beharrezko elementuak bilduko dituelarik.

2. Aitorpen hori jarraian adieraziko diren epeen barruan aurkeztu beharko da, Zergaren sortzapena sortuko den datatik aurrera zenbatuko delarik:

a) Bizien arteko egintzetan, epea hogeitamar lanegunetakoa izango da.

b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epea sei hilabetetakoa izango da, subjektu pasiboak horrela eskaturik urtebeteko mugaraino luzatu ahal izango delarik.

3. Aitorpenari ezarpena sorteraziko duten egintza edo kontratuak bilduko dituen agiria erantsiko zaio.

4.¹⁸ Udalek ahalmena dute subjektu pasiboaren autolikidazio sistema ezartzeko. Sistema horretan, subjektu pasiboak autolikidaziotik ateratzen den kuota ordaindu beharko du, artikuluko honen 2. apartatuan aurreikusitako epeen barruan. Autolikidazio horiei dagokienez, eta betiere interesdunak edo subjektu pasiboak 1.3 eta 4.4 artikuluetan, hurrenez hurren, xedatutakoaren ondorioetarako aitortutako balioak egiaztatzeak aukera baztertu gabe, kasuan kasuko udalak haxe baino ezingo du egiaztatu, alegia, autolikidazio horiek zergaren arauak behar bezala aplikatuta egin direla, arau horietatik ondorioztatutakoak ez bestelako balio, oinarri edo kuotak egotzi gabe.

4.2.a) artikuluko hirugarren paragrafoan aipatutako kasuetan, zerga ezingo da inola ere autolikidazio bidez exijitu.

5. Udalek autolikidazio sistema ezartzen ez dutenean, Zergaren likidazioen berri emango zaie subjektu pasiboari, oso-osorik, sarrera epea adierazi eta bidezko baliabideen aipamena eginez.

¹⁷ Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 10. artikulua gehitu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO), eta xedapen honek 2018-01-01etik aurrerako ondorioak ditu.

¹⁸ Apartatu hau azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Arauaren artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzen du. Foru dekretu-araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2021/11/17ko GAO).

6.¹⁹ Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa kontuan hartu gabe, honako hauek ere egongo dira behartuta zergaia gertatu dela udalari jakinaraztera subjektu pasiboen epe berberen barruan:

a) Dohaintza emailea edo eskubide errealaren eratzailea edo eskualdatzailea, foru arau honen 3. artikuluko 1. apartatuaren a) letran jasotako kasuetan, baldin eta bizien arteko negozio juridiko batengatik sortu badira.

b) Eskuratzailerak edo eskubide errealak bere alde eratu edo eskualdatu zaion pertsona, aipatu artikuluen 1. apartatuko b) letraren kasuetan.

7. Era berean, Notariak hiru hilabeteko bakoitzaren lehen hamabostaldia barruan, aurreko hiru hilabetekoan beraiek baimen emandako agiri guztien zerrenda edo indize laburtua igorri beharko dute, bakoitzak bere Udalari, horiek nolanahi ere esku hartzaileen izen-deiturak edo egoitza soziala, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea izango dutelarik eta, agiri horietan Zerga honen egitate ezargarriaren eginkizuna agerian jartzen duten egintza edo negozioak biltzen direlarik, azken borondateko egintzen salbuespenarekin. Epe berberaren barruan, jakinaren gainean egon edo izenpeak legeztatzeko aurkeztu izan zaizkien egitate, egintza edo negozio juridikoen zerrenda igorri beharko dute. Atal honetan aurikusitakoa Zergetako Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko betebeharrak orokorraren kalterik gabe.

Notarioek espresuki agerleak ohartaraziko dituzte, haiek baimentzen dituzten dokumentuetan, interesatuek zergaren aitortzea aurkeztu behar duten epeaz eta aitortpenak ez aurkezteagatik bere gain hartu ditzaketen erantzukizunez.²⁰

8.²¹ Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta toki entitateek elkarrekin jardungo dute zerga aplikatu dadin eta, bereziki, 1.3 eta 4.4 artikuluetan ezarritakoa betetzea ahalbidetzeko. Horretarako, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte bai zerga arloko informazioa trukatzeko bai lankidetzan jarduteko.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. IZATEZKO BIKOTEAK²²

Foru arau honen ondorioetarako, testu honetan izatezko bikote esaten den guztietan izatezko bikoteak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak aipatzen ari direla joko da.

¹⁹ 6. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 13. artikuluko Zortzi apartatuak aldatu du, 2000ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

²⁰ Paragrafo hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAREN III Kapituluko 11. artikuluko gehitu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak.

²¹ Apartatu hau azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Arauaren artikuluko bakarreko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzen du. Foru dekretu-araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2021/11/17ko GAO).

²² Xedapen hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUAREN 11. artikuluko lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO).

Era berean, ulertuko da erreferentzia horiek beste autonomia erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo hirugarren herrialdeetako erregistro publikoetan antzeko moduan eratu eta inskribatutako izatezko bikoteei ere egiten zaizkiela.

Orobat, ezkontza bidezko ahaidetasun harremanei buruzko aipamenek izatezko bikotetik eratorritakoak ere hartuko dituzte barne.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

1. Hirilurren Balioaren, Gehikuntzaren gaineko Zerga, kasua balitz, 1990.eko urtarilaren 1az gero exigituko da.

2.²³ Balio katastralak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 11. eta horrekin bat datozen artikuluetan jasotako moduan berrikusten ez diren bitartean, ondoko balio hauetako edozein aplikatzen jarraitu daiteke:

a) 1989ko abenduaren 31n indarrean zegoen egungo Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Udal Zergaren balio-indizeen tauletatik ateratzen diren balioak.

b) Foru arau hau aplikatuz ateratzen diren balioak.

c)²⁴ Lurzoruaren baliotik eratortzen direnak, Zerga Administrazioak ondasun higiezinaren benetako balioa Zergen Foru Arau Orokorrak 56. artikuluan aipatutako merkatuko batez besteko prezioen arabera egiaztatzen duenean. Azken balio hori aplikatzea hautatzen bada, udalak finkatuko du zergaren kuota kalkulatzeko karga eskala, gehieneko tasa %10etik gorakoa izan gabe.

Bigarrena.

Foru Arau honek aipatzen dituen udal Entitateen egungo tributuen ezabaketa, haren aplikazioaren ondorioa izanik, hala nola tributua horientzat aginduzko diren xedapenen indargabeketa, Foru Haziendak xedapen horien arabera, aurretik sortutako zorrak exigitzeko duen eskubidearen kalterik gabe ulertzen da.

INDARGABETZE XEDAPENA

1. Honako Foru Arau hau indarrean sartzen den datatik aurrera, bertan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko nahiz beheragoko xedapenak indarrik gabe utziko dira.

2. Aurreko atalean xedatutakoa Foru Arau honen Xedapen Iragankorretan ezarritakoaren kalterik gabe ulertzen da.

²³ 2. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1999rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 21eko 7/1998 Foru Arauaren 19. xedapen gehigarriak aldatu du 1999ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

²⁴ c) letra hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hamairugarren xedapenaren 2 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

AZKEN XEDAPENA

- 1.** Baimena ematen zaio Foru Diputazioari, honako Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.
- 2.** Foru Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***Hiritar izaerako Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zergaren 16/1989 FORU ARAUA zati batean aldatzen duen abenduaren 29ko 20/1989 Foru Araua. (1989-12-30eko GAO).***
 - Bere artikulua bakarrik Atarikoaren 3. parrafoaren azken zatia ezabatzen du.
- ***Uztailaren 2ko 3/1992 FORU ARAUA, izaera tributarioko zenbait neurri hartzen dituen eta Sozietate, Ondorengotza eta Dohaintzeen gaineko zergen eta Lursailen Balio Gehikuntzaren arauteri erregulatzailea aldatzen duena, baita inbertsiorako Pizgarri Fiskalen Arauteria ere. (1992-07-07ko GAO).***
 - 3. artikulua 4.2 artikuluko taula aldatzen du.
- ***Abenduaren 9ko 98/1992 FORU DEKRETUA, bategite, zatiketa, aktiboekarpen eta balore trukeen nahiz sozietate matrize eta eskumendekoen zenbait alderdi arautzeari buruzkoa. (1992-12-29ko GAO).***
 - Xedapen indargabetzaileak 2.3 artikulua ezabatzen du.
- ***Otsailaren 1eko 3/1994 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Herrilade Historikoko araudi fiskala, Estatuaren 1994erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 21/1993 Legea eta neurri fiskalei, funtzio publikoaren araubidearen erreformari eta langabeziarengatikiko babesri buruzko abenduaren 29ko 22/1993 Legean jasotako neurri fiskaletara egokitzen duena. (1994-02-14koGAO).***
 - 15. artikulua 4.6 artikulua aldatzen du.
- ***Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1999rako Aurrekontu Orokorra onartzeari buruzko abenduaren 21eko 7/1998 FORU ARAUA. (1998-12-29ko GAO).***
 - 19. Xedapen gehigarriak Lehen xedapen iragankorraren 2. zenbakia aldatzen du.

- ***Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA. (1999-12-31ko GAO).***
 - 13. artikulua 1. artikularen 2. apartatua, 2. artikularen 2. apartatuko d) letra, 3. artikulua, 4. artikularen 2. apartatua eta 5. artikularen 2. apartatua aldatzen ditu.. 5. artikulari 4. apartatua gehitzen dio. Eta 6. artikularen 2. apartatua, 7. artikularen 6. apartatua eta Lehen xedapen iragankorraren 2. apartatuko c) letra aldatzen ditu.

- ***Uztailaren 6ko 24/2001 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituen. (2001-07-16ko GAO).***
 - Bere 12. artikulua 5.2 artikulua aldatzen du.

- ***Martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUA, toki entitateen zerga sistema aldatzen duena. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).***
 - Bere 6. artikulua 1. artikularen 2. apartatua, 2. artikulua, 4. artikulua eta 5. artikulua aldatu ditu.

- ***Abenduaren 15eko 20/2003 FORU ARAUA, izatezko bikoteen zerga erregimenari buruzkoa (GAO 2003-12-22).***
 - Bere 10. artikulua 1. artikularen 2. apartatuko c) letra eta 5. artikularen 4. apartatua aldatu ditu.

- ***Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAOP 2004-04-16).***
 - Bere 11. artikulua 7. artikuluko 7. apartatuari beste paragrafo bat gehitu dio.

- ***Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO).***
 - Bere amaierako hamairugarren xedapenak 3. artikulua eta lehen xedapen iragankorraren 2. apartatuko c) letra aldatu ditu.

- ***Maiatzaren 14ko 2/2012 FORU ARAUA, Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zergari Buruzko 16/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, aldatzekoa (2012/05/21eko GAO).***

- Artikulu bakarrak 3. artikulua aldatzen du.
- ***Udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 4ko 4/2012 FORU ARAUA (2012/07/10eko GAO).***
 - 3. artikulua 5. artikuluko 1. apartatua aldatzen du.
- ***2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzea (2016/11/18ko GAO).***
 - 6. artikulua ondorengo aldaketak sartu ditu 2016ko urtarrilaren 1eko ondorioekin:
 - Bat apartatuak 6. artikuluen 4. apartatua aldatu du.
 - Bi apartatuak 6. artikuluen 5. apartatua gehitu du.
- ***1/2018 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, zerga arau batzuetan aldaketak sartzen dituena (2018/05/17ko GAO).***
 - II. Tituluko 10. artikulua 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin 6. artikuluen 5. apartatua aldatu eta 6. apartatu berria gehitzen dio.
- ***7/2021 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 16koa, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzea (2021/11/17ko GAO).***

Bere artikulua bakarrak prezeptu hauek aldatu ditu:

- 1. artikuluan 3. apartatu bat gehitu du.
- 4. artikulua.
- 7. Artukuluan 4 apartatua aldatu eta 8. Apartatu bat gehitu du.
- ***1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena (2022/03/14ko GAO).***

Bere 10. artikulua 5. Artikuluko 1. apartatua aldatzen du.

- **6/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena (2022/12/27ko GAO).**

Bere laugarren xedapen gehigarriak hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko lurraren balioari sortzapenaren unean aplikatu beharreko koefizienteen gehieneko zenbatekoak aldatzen ditu, foru arauaren 4. artikuluko 3. apartatuan ezartzen direnak.

- **1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena (2023/01/23ko GAO).**

Bere 11. artikulua 1.2 artikuluen b) letra.

- **1/2024 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena (2024/05/17ko GAO).**

Bere 11. artikulua aldaketa hauek sartzen ditu:

- Bat apartatuak 1.2. artikuluen c) letra.
- Bi apartatuak 4. artikuluen hiru apartatuaren taula.
- Hiru apartatuak 5. artikuluen lau apartatua.
- Lau apartatuak xedapen gehigarri bakarra gehitzen dio.

- **/2025 Foru Araua, maiatzaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onestekoa (2025/05/15eko GAO).**

Bere laugarren xedapen gehigarriak 4. artikuluen 3. apartatuko koefizienteak aldatzen ditu.